## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## 2223

192/1993 DEKRETUA, ekainaren 29koa, maiatzaren 20ko 3/1993 Legeak onetsitako «Ekonomia eta Lanpostuak Sustatzeko Ez-ohizko Fondoari» buruzko neurriak basoen eta natur ingurunearen alorretan arautzen dituena.

Maiatzaren 20ko 3/1993 Legeak «Ekonomia eta Lanpostuak Sustatzeko Ez-ohizko Fondoa» ezartzen du eta, lehenengo azken xedapenean, arau hori garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko ahalmena ematen dio Eusko Jaurlaritzari.

Basoen eta natur ingurunearen alorretan egoki diren neurriak martxan jartzeko xedeaz, bidezko da ahalmen hori erabiltzea lanpostuen sustapena epe laburrean eragiteko, neurri horiek sasoiari loturik baitaude.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko ekainaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Honako dekretu honen xedea, Eusko Jaurlaritzaren fondoetatik, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bitartez, Foru Aldundiei egingo zaizkien transferentziak arautzea da, hala nola, lanpostuak sortzen dituzten eta basoen eta natur ingurunearen alorretakoak diren iharduketak burutzeko, heziketa arloan emango diren laguntzak arautzea ere, maiatzaren 20ko 3/1993 Legean ezarritakoa garatzeko.

*2. atala.*– 1.– Foru Aldundiei egingo zaizkien fondo transferentziak ondoko iharduketa hauetarako izango dira:

a) hidrologia eta basogintzako iharduketak;

b) basoeta landa-pista eta bideen birgaikuntza;

c) degradaturiko naturguneen eta ur-habitaten birgaikuntza;

d) jolasaldeen artapena eta ondare-finken antolamendua paisaiari doakionean.

2.– Laguntzak Nekazaritza eta Arrantza Sailaren zuzeneko dirulaguntzak izango dira, aurreko zenbakian ezarritako kontzeptuei dagozkien heziketa arloko iharduketak finantzatzeko.

3.– Iharduketak burutzeko gehienezko epea 1994ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

*3. atala.*– 1.– Foru Aldundiei egingo zaizkien fondo-transferentziak ondoko balizko hauetarako eta adierazten diren zenbatekokoak izango dira:

a) Onetsitako iharduketak burutzeko kontratatzen diren langileen alokairuen eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ehuneko ehuneraino, talde hitzarmen bakoitzean ezarritakoarekin bat etorriz. Hitzarmenik ezean,

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

## 2223

DECRETO 192/1993, de 29 de junio, por el que se regulan las medidas del «Fondo extraordinario para la reactivación económica y el empleo», aprobado por la Ley 3/1993, de 20 de mayo, en materia forestal y del medio natural.

Por la Ley 3/1993, de 20 de mayo, se establece el «Fondo extraordinario para la reactivación económica y el empleo», cuya Disposición Final Primera autoriza al Gobierno para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo de dicha norma.

Con el fin de poner en práctica las medidas correspondientes en materia forestal y del medio natural, procede hacer uso de dicha autorización para incidir en la reactivación del empleo a plazo corto, teniendo en cuenta el carácter estacional de tales medidas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión del 29 de junio de 1993.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– El objeto del presente Decreto es regular las transferencias de fondos del Gobierno Vasco, a través de su Departamento de Agricultura y Pesca, a las Diputaciones Forales, así como las ayudas en materia de Formación, para la ejecución de actuaciones en materia forestal y medio natural que conlleven la creación de empleo, en desarrollo de lo establecido por la Ley 3/1993, de 20 de mayo.

*Artículo 2.*– 1.– Las transferencias de fondos a las Diputaciones Forales se destinarán a las actuaciones siguientes:

a) Actuaciones hidrológico forestales.

b) Recuperación de pistas y caminos forestales y rurales.

c) Recuperación de áreas naturales degradadas y hábitats acuáticos.

d) Conservación de áreas recreativas y ordenación paisajística de fincas patrimoniales.

2.– Las ayudas consistirán en subvenciones directas del Departamento de Agricultura y Pesca para financiar actuaciones en materia de Formación en los conceptos establecidos en el número anterior.

3.– El plazo máximo de ejecución de las actuaciones será el 31 de diciembre de 1994.

*Artículo 3.*– 1.– Las transferencias de fondos a las Diputaciones Forales se destinarán a los siguientes supuestos y por las cuantías que se indican:

a) Hasta el cien por cien de los salarios y cotizaciones de la Seguridad Social del personal que resulte contratado para la ejecución de las actuaciones aprobadas, con arreglo a lo establecido por los convenios colectivos

sektorean sektoreko ohizko kontratazio-baldintzak aplikatuko dira.

b) Onetsitako iharduketak burutzean, gai, zerbitzu eta hornidurek eragindako gastuen ehuneko ehuneraino.

2.– Heziketa arloko dirulaguntzek, ikastaroen kostuen eta iharduketa subentzionagarriak burutzeko kontratatzen diren langileak gaitzeko beharrezko diren bestelako gastuen ehuneko ehuneraino finantzatuko dituzte.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira Administrazio honek edo beste Herri-administrazio batek ezarritakoekin, baina guzti horien zenbatekoa ezin daiteke inola ere proiektuaren kostu osotik gorakoa izan.

Horri dagokionez, eskabideetan eskaturiko eta lorturiko laguntzak adierazi beharko dira, eta lortzen diren laguntzen berri emango da, lehen zehatutako muga gaindituz gero gutxituak izan daitezen.

*4. atala.*– Hidrologia eta basogintzako iharduketek ondoko hauek bilduko dituzte:

a) mendietako oihan-lanak, mendien ingurugiro-, ekonomiaeta gizarte-eginkizunak hobetzeko xedeaz;

b) higaduraren kontrako borroka, mendi, alde maldatsu, ur-bide eta urtegien birgaikuntza, garbiketa eta hobekuntzen bitartez, ur-higadurari itzuriz eta natur habitatei eutsiz;

c) suteen kontrako borroka, aurrearretazko lanen eta itzaltzeko gordeindarren bidez.

*5. atala.*– Baso- eta landa-pista eta bideak birgaitzeko iharduketek ondoko hauek bilduko dituzte: baso-inguruetan lanak egiteko erabiltzen diren bide eta pistetan urak eragindako kalteak konpontzea, bide eta pistak horiek hobetzea eta landa bideen mentenimendu orokorra.

*6. atala.*– Degradaturiko naturguneak eta ur-habitatak birgaitzeko iharduketek, giza iharduerek degradaturiko alde eta habitaten birgaikuntza bilduko dute.

*7. atala.*– Jolasaldeak artatzeko eta ondare-finkak paisaiari doakionean antolatzeko iharduketak ondoko hauek izango dira:

a) jolasaldeen mentenimendurako lanak, gizarteak alde horiei eskatzen dienari behar bezala erantzuteko;

b) titulartasun publikoko lur eta finken paisaia egokitzeko lanak.

*8. atala.*– Heziketa arloko iharduketen funtsa, aurreko ataletan aipaturiko lanak burutu behar dituzten langileei lanbide-ezagupen zehatzak ematea izango da, sortzen diren lanpostuen eraginkortasuna eta esku-hartzaileen kualifikazioa hobetzeko xedeaz.

*9. atala.*– 1.– Honako dekretu honen 2.1. atalean arauturiko iharduketak, gaiaren zioz eskudunak diren

correspondientes. En defecto de convenio, se aplicarán, las condiciones habituales de contratación en el sector de que se trate.

b) Hasta el cien por cien de los gastos de material, servicios y suministros comprendidos en la ejecución de las actuaciones aprobadas.

2.– Las subvenciones en materia de Formación financiarán hasta el cien por cien del coste de los cursos y otros gastos de formación necesarios para la capacitación del personal contratado para la ejecución de las actuaciones subvencionables.

Estas ayudas serán compatibles con otras establecidas por ésta u otra Administración Pública, no pudiendo en ningún caso superar el importe de todas ellas el costo total del proyecto.

A estos efectos, en las solicitudes deberán consignarse las ayudas solicitadas y obtenidas, comunicándose en su momento las ayudas obtenidas a efectos de su minoración en caso de superar el límite antes determinado.

*Artículo 4.*– Las actuaciones hidrológico forestales, comprenden las siguientes:

a) Trabajos selvícolas en montes, con el fin de mejorar sus funciones ambientales, económicas y sociales.

b) Lucha contra la erosión, mediante recuperaciones, limpiezas y mejoras de montes, zonas de pendiente, cursos de agua y embalses, evitando las erosiones hídricas y manteniendo los hábitats naturales.

c) Lucha contra incendios, mediante trabajos de prevención y mantenimiento de retenes para su extinción.

*Artículo 5.*– Las actuaciones de recuperación de pistas y caminos forestales y rurales comprenderán la realización de mejoras y recuperaciones hidrológicas de los caminos y pistas que sirven a la realización de trabajos en el medio forestal y el mantenimiento general de los caminos rurales.

*Artículo 6.*– Las actuaciones de recuperación de áreas naturales degradas y de hábitats acuáticos comprenderán la recuperación de aquellas áreas y hábitas degradados por la actividad humana.

*Artículo 7.*– Las actuaciones de conservación de áreas recreativas y ordenación paisajística de fincas patrimoniales comprenderán:

a) Los trabajos de mantenimiento de áreas recreativas para atender correctamente la demanda social de ocio dirigida a las mismas.

b) Los trabajos de adecuación paisajística de terrenos y fincas de titularidad pública.

*Artículo 8.*– Las actuaciones de formación comprenderán la impartición de los conocimientos profesionales específicos para el personal destinado a la ejecución de los trabajos comprendidos en los artículos anteriores, a fin de optimizar la eficacia del empleo generado y contribuir a la elevación de la cualificación de los intervinientes.

*Artículo 9.*– 1.– La ejecución de las actuaciones reguladas en el artículo 2.1 del presente Decreto podrán lle-

foru organoek ezezik, ondoko erakunde hauek ere burutu ahal izango dituzte:

– Udalek eta Administrazio Batzarrek,
– Nekazaritza Ganbarek,
– basogintza eta abeltzantzako profesionarien elkarteek eta
– mendiko nekazaritzako elkarteek.

2.– Iharduketa horiek organismo edo erakundeek beraiek burutu ahal izango dituzte zuzenean, edota beren menpeko sozietate edo erakundeek; halaber, kontratazio edo beste erakunde batzuekiko hitzarmenaren bidez egin burutu ahal izango dira.

3.– Atal honetako 1. lerroaldian sarturiko instituzio eta erakundeak izan daitezke heziketa arloko laguntzen onuradun.

*10. atala.*– 1.– Fondoak transferitu baino lehen, Foru Aldundiek garatu bahi dituzten iharduketen proiektuak aurkeztuko dizkiote Nekazaritza Sailburuordetzari, menpe daudeneko arau teknikoei doiturik. Proiektu horiek honako hauek bildu beharko dituzte:

– lortu nahi diren helburu eta xedeen memoria;

– gizarte, ingurugiro eta ekonomiari buruzko alderdiak;

– lanpostuak sortzeko aurrikuspen zehatzak, hala dauden lanpostuen euspena nola lanpostu berrien sorkuntza adieraziz;

– proiektua burutzeko gehienezko epea eta modua, baita burutzapen hori kontrolatzeko sistema ere;

– kontratatu behar diren pertsonen lanbide-kualifikazioaren aurrikuspena eta pertsona horien kategoria;

– proiektua gauzatzeko aurrekontu ekonomikoa, partidatan banakaturik.

2.– Heziketa arloko dirulaguntzarako eskabideak Nekazaritza Sailburuordetzara aurkeztuko dira, eta ondoko agiri hauek erantsiko zaizkie:

– iharduketen proiektuak, aurreko lerroaldian adierazitako edukinarekin;

– organo eskudunaren ziurtagiria, laguntzaz baliatzeko erabakia jasoko duena.

– eskatzaileak iharduteko duen ordezkaritzaren benetakotze-agiria;

– ikastaroko eskola-ordu kopurua, gaien arabera banakatuta, eta heziketarako beste iharduketa batzuen zerrenda xehekatua;

– destinatariak eta lanbide-gaitasuna;

– hezitzaileen lanbide-kualifikazioa eta kualifikazio teknikoa;

– heziketako helburuak;

– gaitasunaren hobekuntzak, geroago, lana lortzerakoan duen eragina.

3.– Aurreko 1 eta 2. lerroaldietan adierazitako agiriak aurkezteko epea, dekretu hau argitaratu eta bihara-

varse a cabo, además de por los órganos forales competentes por razón de la materia, por las siguientes entidades:

– Los Ayuntamientos y Juntas Administrativas.
– Las Cámaras Agrarias.
– Las Asociaciones profesionales de los sectores forestal y ganadero.
– Las Asociaciones de Agricultura de Montaña.

2.– Dichas actuaciones podrán ser llevadas a cabo directamente por los propios organismos o entidades, o por sociedades o entes dependientes de los mismos, así como mediante la contratación o convenio con otras entidades.

3.– Podrán ser beneficiarias de las ayudas de formación todas las instituciones y entidades incluidas en el número 1 del presente artículo.

*Artículo 10.*– 1.– Con carácter previo a la realización de las transferencias de fondos, las Diputaciones Forales presentarán a la Viceconsejería de Agricultura los proyectos de las actuaciones que pretenden desarrollar, ajustados a la normativa técnica a que están sometidos. Estos proyectos deberán contener:

– Memoria de objetivos y finalidades a alcanzar.

– Aspectos sociales, medioambientales y económicos.

– Previsiones detalladas de creación de empleo, señalando tanto el mantenimiento de empleo como la creación de nuevos puestos.

– plazo máximo de ejecución y forma en que ésta se realizará, así como el sistema de control de dicha ejecución.

– Previsión de la cualificación profesional de las personas a contratar y su categoría.

– Presupuesto económico de ejecución, desglosado por partidas.

2.– Las solicitudes de subvención en materia de formación se presentarán ante la Viceconsejería de Agricultura, debiendose acompañar de la siguiente documentación:

– Los proyectos de actuaciones, con el contenido descrito en el número anterior.

– Certificación del órgano competente que recoja la decisión de acogerse a la ayuda.

– Acreditación de la representación en virtud de la cual actúa el solicitante.

– Número de horas lectivas del curso, desglosadas por materias y temas, así como relación detallada de otras actuaciones formativas.

– Destinatarios y capacitación profesional.

– Cualificación profesional y técnica de los formadores.

– Objetivos formativos.

– Incidencia de la mejora de la capacitación de cara a la obtención de empleo posteriormente.

3.– El plazo para la presentación de la documentación señalada en los números 1 y 2 anteriores comenza-

munean hasiko da eta 1993ko irailaren 30ean amaituko da. Hala ere, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak aginduz gero, beste epe batzuk ireki ahal izango dira.

*11. atala.*– 1.– Nekazaritza Sailburuordeak dekretu honen 10.1. atalean aipaturiko proiektuak ebaluatu ondoren, egoki diren akordioak sinatuko ditu Foru Aldundiekin, eta Euskal Herriko Administrazio Orokorreko organo eskudunek fondoak transferituko dizkiete aldundiei, proiektu horiek finantzatzeko xedeaz.

2.– Nekazaritza Sailburuordeak hartuko du heziketa arloko dirulaguntzarako eskabideei buruzko erabakia, aurrekontuko baliakizunen arabera eta eskabideak aurkezten diren ordena kontutan hartuz.

*12. atala.*– Heziketa arloko dirulaguntzak ematean, esleitu eta zenbatekotzeko irizpideak honako hauek izango dira:

a) proiektuaren ondoriozko lanpostuen sorkuntza edota, kasuan kasu, euspena;

b) heziketaren egokitasuna, destinatariek garatu behar dituzten iharduketak behar bezala burutzeko;

c) egitaraua burutu ondoren lana lortzeko egokia den heziketa ematea;

d) natur ingurune eta natur baliabideen kudeaketa, hobekuntza eta artapenaren arloko langile kualifikatuak sortzea.

Erabakitzeko irizpide horiek haztatzean, lanpostuen sorkuntzari emango zaio lehentasuna.

*13. atala.*– 1.– Nekazaritza Sailburuordearen akordio eta erabakiek ez dute administrazio-bidea agortzen eta interesatuek errekurtso arrunta jarri ahal izango diote erabakia ematen duenaren hierarkiazko nagusiari, Herri-administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Herkideari buruzko Legearen 107. eta hurrengo ataletan ezarritakoaren arabera.

2.– Deialdi honi buruzko erabakia, beranduenik jota, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den dataren ondorengo bi hilabeteen buruan hartuko da.

Epe horren barruan erabakirik ez badago, eskabidea gaitzeritzia izan dela ulertuko da.

*14. atala.*– Dekretu honen ondorioz finantza daitezkeen proiektuek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Langabezian eta Enplegurako Nazio Institutuaren erregistroetan inskribaturik dauden langileak kontratatzea.

b) Gutxienez sei hilabeteko iraupena izango duten aldibaterako kontratuak egitea; kontratuek, beranduenez, 1994ko abenduaren 31n amaitu beharko dute.

c) Kontrataturiko langileei alta eman beharko zaie Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Araubide Berezian. Hala ere, araubide hori bidezkoa ez denean, la-

rá el día siguiente al de la publicación de este Decreto y terminará el 30 de setiembre de 1993. No obstante, por Orden del Consejero de Agricultura y Pesca podrá procederse, en su caso, a la apertura de nuevos plazos.

*Artículo 11.*– 1.– Una vez evaluados por el Viceconsejero de Agricultura los proyectos a que hace referencia el Artículo 10.1. del presente Decreto se procederá a la suscripción por aquél de los oportunos acuerdos con las Diputaciones Forales, así como a la transferencia de los fondos a las mismas por parte de los Organos Competentes de la Administración General del País Vasco, a fin de financiar dichos proyectos.

2.– El Viceconsejero de Agricultura resolverá las solicitudes de subvención en materia de formación en función de las disponibilidades presupuestarias y atendiendo al orden de presentación de solicitudes.

*Artículo 12.*– Los criterios de adjudicación y cuantificación para el otorgamiento de subvenciones en materia de formación serán los siguientes:

a) La creación y, en su caso, mantenimiento de empleo que suponga.

b) La adecuación de la formación para el correcto desarrollo de las actuaciones que corresponda desarrollar a sus destinatarios.

c) La impartición de una formación que sea de utilidad para la obtención de empleo con posterioridad a la ejecución del programa.

d) La creación de personal cualificado en materia de gestión, mejora y conservación del medio natural y los recursos naturales.

En la ponderación de dichos criterios de resolución se atenderá, preferentemente, a la creación de empleo.

*Artículo 13.*– 1.– Los acuerdos y resoluciones del Viceconsejero de Agricultura no agotan la vía administrativa, pudiendo los interesados interponer contra la misma Recurso ordinario ante el superior jerárquico del que la dictó, con arreglo a lo establecido en los artículos 107 y siguientes de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– La presente convocatoria se resolverá en el plazo máximo de dos meses desde la fecha de finalización del período de presentación de solicitudes.

La falta de resolución en dicho plazo tendrá carácter desestimatorio.

*Artículo 14.*– Los proyectos financiables como consecuencia del presente Decreto habrán de cumplir las siguientes condiciones:

a) Contratación de personal en situación de desempleo, que se encuentre inscrito en los registros del Instituto Nacional de Empleo.

b) Contratación mediante contrato temporal con una duración mínima de seis meses, debiendo finalizar, como máximo el 31 de diciembre de 1994.

c) El personal contratado será dado de alta en el Régimen Especial Agrario de la Seguridad Social. No obstante, cuando no proceda dicho Régimen, será de apli-

guntzen den iharduneraren arabera Gizarte Segurantzaren araubideen artean egoki dena aplikatuko da.

d) Kontratatuko langileen alokairuak kasu bakoitzari dagokion talde hitzarmenaren arabera ezarriko dira. Hitzarmenik ezean, sektorean sektoreko ohizko kontratazio-baldintzak aplikatuko dira.

*15. atala.*– 1.– Eusko Jaurlaritzaren fondoak Foru Aldundiei transferitzean, 1993ko ekitaldiko aurrekontu-urtean proiektuetarako hitzarturik dagoen finantzaketaren zenbateko osoa transferituko da, akordioa sinatu ostean.

2.– Kasua denean, 1994ko ekitaldiari dagokion urteko kopurua urte horren hasieran transferituko da, finantzaturiko iharduketen burutzapenaren arabera.

3.– Akordioa sinatu eta hiru hilabeteko epean, proiektuak hasi direla frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira; agiri horien barruan, kontratuak eta Gizarte Segurantzako alta gaztiguak sartuko dira.

4.– Proiektuak amaitu eta bi hilabeteko gehienezko epean, gastuen azkeneko frogagiriak aurkeztu beharko dira, baita dekretu honen pentsutan finantzaturiko iharduketak burutu direla frogatzen dutenak ere.

5.– Transferitutako fondoak ez badira azkenean destinatzen finantzaturiko proiektuen burutzapenera, edo Foru Aldundietan onuradunek itzulitako kopuruen ondoriozko gerakinik badago, foru organoek kopuru horiek Euskal Herriko Ogasun Nagusiari itzuli beharko dizkiote, abenduaren 20ko 31/1983 Legean aurrikusitako prozedurekin bat etorriz.

*16. atala.*– 1.– Heziketa arloko dirulaguntzak aldez aurretik ordainduko dira eta iharduketa horietarako onesten den aurrekontu osoa estaliko dute.

2.– Heziketako iharduketak burutu eta, beranduenik jota, hilabeteko epean, onuradunek aurrikusi zen iharduketa benetakotzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, jasotako diru kopuruak gastu subentziona-garrietarako erabili direla frogatuz, laguntza emateko erabakiarekin bat etorriz eta, kasuan kasu, faktura, kontratu eta Gizarte Segurantzako alta gaztiguak ekarriz.

*17. atala.*– 1.– Honako dekretu honen arabera finantza daitezkeen proeiktuen desbideraketa ekonomikoek laguntzaren zenbatekoaren aldaketa ekar dezakete; horretarako beharrezkoa izango da Nekazaritza Sailburuordearen beste akordio edo erabaki bat, beti ere aurrekontuko baliakizunak kontutan hartuz gehikuntzaren kasuan.

2.– Zenbatekoak aldatzeko, kontutan hartuko diren zioak honako hauek izango dira:

a) alokairuen gehikuntzak, aplika daitezkeen talde hitzarmenen eta gizarte-kotizazioei buruzko arauen aldaketaren ondorioz gertatzen direnean;

b) burutzapen kostuen igoerak edo epeen gerorapena, burutu behar diren lanetan eragin zuzena duten klimatologi arazoengatik gertatzen direnean;

ación el régimen de Seguridad Social que corresponda en función de la actividad objeto de la subvención.

d) Los salarios del personal contratado serán establecidos según el correspondiente convenio colectivo. En defecto de convenio se aplicarán las condiciones habituales de contratación en el sector de que se trate.

*Artículo 15.*– 1.– La transferencia de los fondos del Gobierno Vasco a las Diputaciones Forales se realizará por la totalidad del importe de la financiación acordada de los proyectos correspondiente a la anualidad presupuestaria del ejercicio 1.993, tras la firma del Acuerdo.

2.– En su caso el importe de la anualidad correspondiente al ejercicio 1994 se transferirá a comienzos del mismo año, y en función del cumplimiento de las actuaciones financiadas.

3.– En el plazo de tres meses desde la firma del acuerdo deberá presentarse la documentación justificativa del inicio de los proyectos incluyéndose en la misma, los contratos y partes de alta en la Seguridad Social.

4.– En el plazo máximo de 2 meses desde la finalización de los proyectos deberá presentarse la documentación justificativa final del gasto y de la realización de actuaciones financiadas con cargo al presente Decreto.

5.– En los supuestos que los fondos transferidos no llegaran a destinarse para la ejecución de los proyectos financiados, o existieran remanentes en las Diputaciones Forales resultantes de la reversión de cantidades de los beneficiarios, los Organos Forales deberán reintegrar las mismas a la Hacienda General del País Vasco de conformidad con los procedimientos previstos en la Ley 31/1983, de 20 de diciembre.

*Artículo 16.*– 1.– El pago de las subvenciones en materia de formación será con carácter anticipado y por la totalidad del presupuesto que resulte aprobado de dichas actuaciones.

2.– En el plazo máximo de un mes desde la finalización de las actividades de formación deberá presentarse por los beneficiarios la documentación acreditativa de la actuación prevista, mediante la justificación de la aplicación de las cantidades percibidas a los gastos subvencionables, conforme a la resolución de concesión aportando en su caso, facturas, contratos y partes de alta en la Seguridad Social.

*Artículo 17.*– 1.– Las desviaciones económicas de los proyectos financiables conforme al presente Decreto podrán dar lugar a una modificación de su cuantía, para lo cual será preciso nuevo acuerdo o resolución del Viceconsejero de Agricultura, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias en caso de incremento.

2.– Los motivos a considerar a efectos de modificación de cuantías serán:

a) Incremento de salarios como consecuencia de modificiación de los convenios colectivos aplicables y de las normas sobre cotizaciones sociales.

b) Aumentos de los costos de ejecución o demora en los plazos de los mismos como consecuencia de dificultades debidas a la climatología con repercusión directa en los trabajos a realizar.

c) lege-inguruabar edo inguruabar materialengatik gertatzen diren kostu-igoerak;

d) proiektuaren burutzapen-kostuen urripenak, prezioen merkatzeagatik, laguntza emateko erabakian jasotako iharduketa guztiak ez burutzeagatik edo antzerako zioengatik gertatzen direnean.

*18. atala.–* Heziketa arloko dirulaguntzaren onuradunak, laguntza emateko erabakian, dekretu honetan eta aplika daitezkeen gainerako arauetan ezarritako baldintzetarik edozein betetzen ez badu, Nekazaritza Sailburuordeak, erabakiaren bidez, jasotako kopuruak eta bidezko diren legezko korrituak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra adieraziko du, 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, bidezko izan daitezkeen gainerako ekintzen kalterik gabe. Aipatutako kopuruak sarrera publikotzat hartuko dira egoki diren legezko ondorio guztietarako.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ahalmena ematen zaio Nekazaritza eta Arrantza Sailburuari honako dekretu honetan ezarritakoa, bere eskumenen eremuan, garatu eta betearazteko.

*Bigarrena.–* Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko ekainak 29.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

c) Incrementos de costos que se produzcan por circunstancias materiales o legales.

d) Disminuciones de los costos de ejecución del proyecto producidos por abaratamiento de los precios, ejecución de menos actuaciones de las incluidas en la resolución de concesión u otras causas similares.

*Artículo 18.–* En el supuesto de que el beneficiario de la subvención en materia de formación incumpliese cualquiera de las condiciones establecidas en la Resolución de concesión, así como en el presente Decreto y demás normas de aplicación, el Viceconsejero de Agricultura, mediante la correspondiente Resolución, declarará la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades que hubiera percibido mas los intereses legales que fueran procedentes, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre de 1991, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Agricultura y Pesca para el desarrollo y ejecución, en el ámbito de sus competencias respectivas, de lo establecido en el presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz a 29 de junio de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRI ETA ENERGI SAILA

### 2224

ERABAKIA, 1992ko azaroaren 20koa, Bizkaiko Industria eta Energiako lurralde-ordezkariarena, «Arrieta II sarea», industrian erabiltzeko gas naturalen ezarkinak eraikitzeko baimena ematen duena.

Euskadiko Gasa (Gas de Euskadi,S.A.) baltzuak, San Bizente kalea 8, I. Albia Eraikina 15. oina, 48001-Bilbao, hala eskatuta, Industria eta Energiako Lurralde Ordezkaritza honetan hasiera eman zaion espedientea ikusi da, Arrieta, Errigoiti eta Gernika-Lumoko udalerrietan, «Arrieta II sarea» izeneko egitasmoari dagozkion ezarkinak eraikitzeko baimena eskatzen duena.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y ENERGIA

### 2224

RESOLUCION de 20 de noviembre de 1992, del Delegado Territorial de Industria en Bizkaia, por la que se autoriza la construcción de las instalaciones de gas natural para usos industriales denominada «Red de Arrieta II».

Visto el expediente incoado en esta Delegación territorial del Departamento de Industria y Energía, a petición de la Sociedad de Gas de Euskadi, S.A., con domicilio en la calle San Vicente n.º 8 Edificio Albia I - 15 planta, 4800l-Bilbao, solicitando la autorización para la construcción de las instalaciones correspondientes al proyecto denominado «Red de Arrieta II», en los términos municipales de Arrieta Errigoiti y Gernika-Lumo.